



# Hau da aste honetako euskararen pilula!

## INPUTATU hitzaren ordeez, zer?

Investigado: **Ikertu**

Encausado: **Auzipetu**

Procesado: **Prozesatu**

Acusado: **Akusatu**

## AZALPENA

---

Prozedura Zibilaren azken aldaketen artean “inputatu” terminoa ordeztea erabaki da, konnotazio negatiboak zekartzalakoan, atzean dituen kontzeptuak argitu eta zorroztearren. Hortaz, inputatu hitzaren ordeez egokiagotzat jotzen dira “ikertu” (*investigado*) eta “auzipetu” (*encausado*) terminoak, dagokion prozesu-fasearen arabera erabiltzekoak:

- **IKERTU** (*investigado*): Delitu batekin duen erlazioa dela-eta, ikerketapean den pertsona. Instrukzio-garaian erabiltzekoa, oraindik ere delitua ikertzen ari denean.
- **AUZIPETU** (*encausado*): Auziaren instrukzioa amaitu denean, agintaritza judizialak delitu zehatz bat egin izana formalki egozten badioikertuari, orduan, oro har, auzipetu bilakatzen da pertsona hori. Hortaz, instrukzio-garaia amaitu denean erabiltzekoa da.

Nolanahi ere, aldaketa horrek ez ditu aldatzen ikertua edo auzipetua definitzeko erabiltzen diren beste izendapen batzuk, hala nola “prozesatu” (*procesado*) eta “akusatu” (*acusado*), eta dagokion egoera prozesalaren arabera erabili ahal izango dira.

- **PROZESATU**: sumarioari dagokio, eta epaileak uste badu arrazoizko kriminalitate zantzurik badagoelapertsona baten aurka, pertsona hori prozesatu deklaratzeko autoa emango du.
- **AKUSATU**: prozedura laburtuan erabiltzen da, akusazio formala eginda dagoenean.

ITURRIA: [Euskalterm](#)